

EAEko ETXEBIZITZA, GARAJE ETA LOKALEN ESKAINTZA 1995

**1995eko 2. hiruhileko txostena
E877 Erref.**

1995eko Uztaila

1. Kapitulua

SARRERA

1. SARRERA

Ondoren aurkezten dena, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak **Ikei** etxeari eskatu zion 1995. urtearen 2. hiruhilekoari dagokion EAeko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko azterlana da.

Txosten hau lantzeko erabili den metodologia, 1.1. taularen arabera lurraldeetan banatu ziren laginak jarraituz, hiruhileko honetan etxebizitzak eskaini dituzten EAeko sustatzaile taldeei (86 inkesta eraginkor) nahiz agente inmobiliarioei (100 inkesta eraginkor) egindako zenbait inkestatan¹ oinarritu da.

1.1. Taula

EGINDAKO INKESTA ERAGINKORREN LURRALDEKAKO BANAKETA

	SUSTATZAILEAK(*)	INMOBILIARIAK (+)
Araba	11	10
Gipuzkoa.....	36	43
Bizkaia.....	39	47
EAE	86	100

Iturria: EAeko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta.
1995eko 2. hiruhilekoa.

Inkesta egiterakoan, eragile bakoitzari, une horretan (ekaina-uztaila) eskaintzeko zituen etxebizitza, garaje eta lokalak kuantifikatu eta kualifikatzeko eskatu zitzaion. Sustatzaileen kasuan etxebizitza berriak dira noski (sustatzaileen kontura salduak) eta jabetza-agenteen kasuan berriz, etxebizitza berriak (sustatzaileen kontura salduak) nahiz erabilitako etxebizitzak (partikularren kontura salduak) dira. Bertan, merkatuaren egungo egoerari buruzko galdera baloratibo batzuk ere barneratzen ziren.

Txostena irakurri aurretik egin beharreko oharren artean, prezioak, EAeko eskaintzen zati nagusia osatzen duten etxebizitza *kolektibo*ei dagozkienak direla gogorazi behar da.

¹ Araldik garatutako landa-lana.

Aldi baterako bilakaerari dagokionez, txostenean jasotzen diren tauletan jasotako aldagaiak (etxebizitza kp edo prezioak) aurreko urteko hiruhileko berean izan zuen balioarekiko (eta ez orain arte egin izan den bezala, azkeneko hiruhilekoan izandako balioarekiko) izan dituen aldaketak islatzen ditu.

Etxebizitzen prezioei dagokienez, batezbesteko prezio ponderatuak direnez, beren bilakaera ondorengo faktoreen emaitza dela azpimarratu behar da: prezioak, prezio maila bakoitzeko etxebizitza kopurua eta eskaintzaren kokapen geografikoa. Etxebizitzen batezbesteko prezioetan eragina du baita eskaintzen diren etxebizitzen batezbesteko azaleraren bilakaerak eta, orokorrean, beren tipologiak.

Zentzu honetan, eremu espazial jakin bateko prezio aldaketak, batezbestekoen aldaketak izango balira bezala ulertu behar dira. Hau da, aurreko denboraldietan baino prezio baxuagoak ez dira eskaintzen diren etxebizitzen kostuaren prezio gutxitze orokor gisa derrigorrez ulertu behar, prezio txikiagoko etxebizitzek presentzia handiagoa duten eskaintza-egitura baten konfigurazioa bezala baizik.

Hala ere, ematen diren emaitzek lagin izaera dutela esan beharra dago eta hau bereziki garrantzitsua da eskaintzen kuantifikazioari dagokionez.

Aurreko edizioetan bezala, emaitzazko Txostena, Sarrera hau barne hartzen duten zazpi kapitulutan egituratzen da. 2. kapituluak eskaintzaren eta bere bilakaeraren ikuspegi orokor bat ematen du, hau da, bere bolumena etxebizitza motaren eta azalerako prezioen nahiz prezio absolutuen arabera. Emaitzak, Lurralde Historikoetan bananduta ematen dira gainerako kapituluetan bezala.

3. kapitulua etxebizitzen salmentari buruzkoa da eta hasieran eraikuntza berriak aztertzen ditu, sustaketan ezaugarrietan ematen diren aldaketak nahiz etxebizitzen eskaintza kuantifikatu eta prezioak aztertzerakoan etxebizitzak berak aztertuz. Ondoren, salgai dauden erabilitako etxebizitzen ezaugarriak aztertzen ditu.

4. kapitulan, alokatzeko dauden etxebizitzaren eskaintzaren tipologia, prezioa eta bolumenaren bilakaera islatzen da, 5. kapitulan garaje eta lokaletan ematen diren bolumenak eta prezioak jasotzen diren bitartean.

6. kapitulan eremu espazial txikiagoetako etxebizitzaren eskaintza zehazten da, aipatu berri dugun bezala: hiriburuetan, hiriburuen area funtzionaletan, hauek kanpo, eta hiru Lurralde Historikoetan, hiriburuen area funtzionalak kanpo.

7. kapitulan euskal merkatu inmobiliarioaren dinamika islatzen da, inkestaren xede izan diren sustatzaile eta agenteen begiekin ikusita. Bertan, aurreko hiruhilekoari buruz nahiz etorkizunari buruz duten iritzia islatzen da.

1.2. taulan, aurreko hiruhilekoan, aribidekoan eta aurreko urtekoan etxebizitzaren merkatu libreari buruz lortutako emaitzen laburpena aurkezten zaigu.

1.2. Taula

ETXEBIZITZEN ESKAINTZAREN INDIKATZAILEEN LABURPENA. MERKATU LIBREA

	1994 2. hiruhilekoa	1995 1. hiruhilekoa	1995 2. hiruhilekoa
1. ETXEBIZITZA BERRIA			
. Salgai dauden etxeb. kp.....	3.086	2.684	2.467
. < 60 m ² etxeb. berri %	12,0	16,6	15,5
. Prezioa/m ² * - EAE.....	218	251	250
. Prezioa/m ² * - Gasteiz.....	241	196	254
. Prezioa/m ² * - Donostia	346	353	353
. Prezioa/m ² * - Bilbo.....	247	240	251
. Eskaintzen diren sustapen kp:			
Guztira.....	87	107	116
Lehen aldiz hiruhilekoan kaptatua.....	-	37	21
2. ERABILITAKO ETXEBIZITZA			
. Salgai dauden etxeb. kp.....	7.077	6.554	7.085
. Prezioa/m ² *	224	224	218
3. ALOKATZEKO DAGOEN ETXEBIZITZA			
. Etxeb. kp	1.118	1.019	958
. Errenta/hilean ²	102	86	88
4. MERKATUKO INDIZEAK			
. Dinamismo indizea **	34,3	33,2	25,4
. Salmenten aurrikuspen ind. (hur. hiruhil.) ***	47,0	59,5	45,0
. Prezioen aurrikuspen ind. (6 hiruhil.) ***	58,5	75,0	68,0
. Hurrengo hiruhil. hasteko etxeb. aurrikusp.	1.493	1.059	1.323

(*): Milaka pezeta.

(**): 0 (gehienezko geldialdia) eta 100 (gehienezko dinamismoa) artean mugitzen da.

(***): 0 (salmenten gutxitze orokorra) eta 100 (gehikuntza orokorra) artean mugitzen da.

(****): 0 (prezioen jeitxiera orokorra) eta 100 (igoera orokorra) artean mugitzen da.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 1995eko 2. hiruhilekoa.

2. Kapitula

ETXEBIZITZEN ESKAINTZAREN INDIKATZAILE OROKORRAK

2. ETXEBIZITZEN ESKAINTZAREN INDIKATZAILE OROKORRAK

2.1. ETXEBIZITZA KOPURUA

- 1995. urteko bigarren hiruhilekoan egindako inkestaren arabera EAEn **eskaintzen diren etxebizitzak** kopurua 11.843 unitatekoa da, hau da, 1994. urteko hiruhileko berean jaso zen bolumena baino %3 gutxiago.
- **Salgai dauden etxebizitzek** berriz eskaintza osoaren %92a osatzen dute eta guztira 10.885 unitate dira, hauetatik %35 berriak eta gainerako %65a erabilitakoak.
- Aurreko urteko hiruhileko berean antzemandakoarekiko **bilakaerari** dagokionez, salgai dauden etxebizitza berrien eskaintzak %4ko murrizketa jasan du, etxebizitza libreen segmentuak jasan duen murrizketaren (%20) ondorioa alegia. Babestutako etxebizitzaren segmentuan berriz gehikuntza garrantzitsua izan da (%53)² eta erabilitako etxebizitzek aurreko urteko maila mantentzen dute.
- **Lurraldeei** dagokienez, etxebizitza berria eta erabilitakoa elkarrekin kontuan hartuz, Gipuzkoan eskaintzaren murrizketa garrantzitsua nabarmendu da, Araba eta Bizkaiak antzeman duten gehikuntza apalagoaren ondoan. Hala ere, bilakaera ez da homoginoa izan eskaintza mota desberdinetan. Etxebizitza libre berriari dagokionez hiru lurraldeek eskaintzaren bolumenean murrizketa antzeman dute aurreko urteko zenbatekoekin alderatuz, murrizketa hauek hiru lurraldeetan oso desberdinak izan badira ere: oso gogorra Bizkaian (%29) eta Araban (%19) eta askoz arinagoa Gipuzkoan (%8).
- Salgai dauden erabilitako etxebizitzetara dagokienez, Gipuzkoako eskaintzak antzeman duen murrizketa bikaina (%20) azpimarra daiteke, Arabakoa mantendu eta Bizkaikoa gehitu egin diren bitartean (%13).

²Mota honetako etxebizitzaren esleipen sistemek (sustapena) une jakin batean eskaintzaren bolumenean bat-bateko aldaketak eragiten dituztela ere kontuan izan beharra dago.

- **Salgai dagoen etxebizitza berrian** arreta jartzen badugu, proportzioa babestutako etxebizitza bakoitzeko bi etxebizitza libre ingurukoa dela egiaztatzen dugu (babes ofiziala eta gizarte etxebizitzak bilduz): 2.467 etxeb. libre, babestutako 1.333 etxebizitzaren aurrean. Honek, 1994. urtearen bigarren hiruhilekoan %22a besterik adierazten ez zuen babestutako etxebizitzaren segmentuaren partaidetza gehitu dela esan nahi du.
- Lurraldeka ikusirik, babestutako etxebizitzaren eskaintza honela banatzen da: %50 Gipuzkoan, %38 Bizkaian eta gainerako %11 Araban.
- **Alokatzeko** dauden etxebizitzaren eskaintzak³ (958 unitate) eskaintza osoaren %8a osatzen du. Alokatzeko dauden etxebizitza guztiak partikularrenak dira (jabetza inbiliararioaren agenteek eskaintzen dituzte) eta ez dago sustatzaileen eskaintzarik (sustapen berrietara asoziatua).

2.1. Taula

ESKAITZEN DIREN ETXEBIZITZEN BILAKAERA EAEn

	GUZTIRA	SALGAI					ALOKATZE KO	
		SALGAI GUZTIRA	BERRIA			ERABILI TAKOA		
			Guztira	B.O/Gizarte E	Libreak			
1994	I	12.944	11.950	4.658	1.626	3.032	7.292	994
	II	12.153	11.035	3.958	872	3.086	7.077	1.118
	III	12.691	11.670	4.802	1.244	3.558	6.868	1.021
	IV	13.326	12.346	5.466	1.820	3.646	6.880	980
1995	I	11.544	10.525	3.971	1.287	2.684	6.554	1.019
	II	11.843	10.885	3.800	1.333	2.467	7.085	958

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 1995eko 2. hiruhilekoa.

³ Okupazio nagusiko etxebizitzaren eskaintza bakarrik izan da kontuan.

2.2. Taula

ETXEBIZITZEN ESKAINTZA LURRALDE HISTORIKOKA

	GUZTIRA	SALGAI					ALOKATZE KO
		SALGAI GUZTIRA	BERRIA			ERABILI TAKOA	
			Guztira	B.O/Gizarte E	Libreak		
Araba	1.620	1.540	333	152	181	1.207	80
Gipuzkoa.....	3.853	3.510	1.629	511	1.118	1.881	343
Bizkaia.....	6.370	5.835	1.838	670	1.168	3.997	535
EAE	11.843	10.885	3.800	1.333	2.467	7.085	958

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 1995eko 2. hiruhilekoa.

2.3. Taula


ESKAINITAKO ETXEBIZITZEN ALDAKETA TASA LURRALDE HISTORIKOKA (± %)*

	GUZTIRA	SALGAI					ALOKATZE KO
		SALGAI GUZTIRA	BERRIA			ERABILI TAKOA	
			Guztira	B.O/Gizarte E	Libreak		
Araba	3,4	7,8	50,0	-	-18,5	0,1	-42,4
Gipuzkoa.....	-10,9	-14,6	-7,6	-6,1	-8,3	-19,9	60,3
Bizkaia.....	1,7	6,1	-6,8	104,3	-29,0	13,4	-30,1
EAE	-2,6	-1,4	-4,0	52,9	-20,1	0,1	-14,3

(*): Aurreko urteko hiruhileko berari dagozkion datuekin alderatuz egon den etxebizitza kopuruaren aldaketa.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 1995eko 2. hiruhilekoa.

2.1. Grafikoa



2.2. PREZIOAK ETA ERRENTAK

- 1995. urteko bigarren hiruhilekoan Euskal Herriko etxebizitzaren merkatu librean **metro karratuko batezbesteko** prezioa 226.000 pezetakoa da, aurreko urteko hiruhileko berean lortu zen balioa baino %2 gehiago. Gainera, etxebizitza libre berriaren prezioa erabilitakoarena baino %15 altuagoa da, bakoitzaren balio absolutuak 250.000 pezeta/m² eta 218.000 pezeta/m² direlarik.
- Etxebizitza berriek eta erabilitakoek izan duten prezioen bilakaera desberdina izan dela kontuan izanik, erabilitako etxebizitzaren prezioek %2,5eko murrizketa izan duten bitartean, berrien prezioek %15eko gehikuntza jasan dutela ikus daiteke.

- Lurraldeka, Gipuzkoako prezioek jarraitzen dute altuenak izaten eta etxebizitza libre berrien prezioei dagokienez, antzeko balioak dituzten Araba eta Bizkaiko prezioak %25ean gainditzen dituzte. Erabilitako etxebizitzetara dagokienez ere Gipuzkoan dira altuenak baina, oraingoan Bizkaikoak lasai gainditzen dituzte, Arabako prezioekiko diferentzia gutxirekin.
- 1994ko bigarren hiruhileko datuekin alderatuz, Araba da erabilitako etxebizitzaren prezioetan gehikuntza oso garrantzitsua jasan duen bakarra (%29); etxebizitza berriei dagokienez berriz Gipuzkoa eta Bizkaiko gehikuntzekin alderatuta (%13 eta %16 hurrenez hurren) gehikuntza moderatua izan du.
- Etxebizitza libre berriaren eta erabilitakoaren prezioen arteko erlazioa alderatu ondoren, bigarren eskuko etxebizitzaren prezioak Araban duen nagusitasuna azpimarra daiteke. Hau, eraiki berrien aurrean duten kokapen geografiko hobearen ondorioa da nagusiki.
- Babestutako etxebizitzaren batezbesteko prezioari dagokionez, bere balioa 113.000 pezeta/m²koa da. Duela urtebete jasotako balioarekiko %8ko gehikuntza jasan du beraz.
- **Etxebizitzaren batezbesteko prezioaren analisisa** egin ondoren 21,2 milioi pezetako zenbatekoa lortzen dugu merkatu librerako (etxebizitza berriak nahiz erabilitakoak kontuan izanik) eta 7,8 milioikoa babestutako etxebizitzentzat.
- Etxebizitza libre berriaren prezioa bigarren eskukoarenarekin alderatuz, 23,4 milioi eta 20,5 milioiko batezbestekoa lortzen da, hurrenez hurren.

2.4. Taula

EAE_n SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZEN METRO KARRATUKO PREZIOAREN* BILAKAERA

		LIBREA GUZTIRA**	BERRIA		ERABILITAKOA
			B.O./Gizarte E	Libreak	
1994	I	202	110	204	202
	II	222	104	218	224
	III	215	110	215	215
	IV	232	105	207	245
1995	I	232	110	251	224
	II	226	113	250	218

(*): Milaka pezeta/m².

(**): Etxebizitza libre berriak eta erabilitako etxebizitzak.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 1995eko 2. hiruhilekoa.

2.5. Taula

LURRALDE HISTORIKO BAKOITZEAN SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZEN METRO KARRATUKO PREZIOA

	LIBREA GUZTIRA**	BERRIA		ERABILITAKOA
		B.O./Gizarte E	Libreak	
Araba	248	81	213	253
Gipuzkoa	270	119	283	262
Bizkaia	196	114	225	187
EAE	226	113	250	218

(*): Milaka pezeta/m².

(**): Etxebizitza libre berriak eta erabilitako etxebizitzak.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 1995eko 2. hiruhilekoa.

2.6 Taula**LURRALDE HISTORIKO BAKOITZEAN SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZEN
METRO KARRATUKO PREZIOAREN ALDAKETA TASA ($\pm\%$)^{*}**


	LIBREA GUZTIRA**	BERRIA		ERABILITAKOA
		B.O./Gizarte E	Libreak	
Araba	25,3	-	5,0	28,6
Gipuzkoa	0,7	11,3	15,7	-6,4
Bizkaia	-0,6	14,6	12,5	-4,2
EAE	2,0	8,5	14,8	-2,5

(*): m²ko prezioek aurreko urteko hiruhileko *bereko* prezioekiko izan duten aldaketa.


(**): Etxebizitza libre berriak eta erabilitako etxebizitzak.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 1995eko 2. hiruhilekoa.


2.2. Grafikoa



2.3. Grafikoa



2.4. Grafikoa



- Metro karratuko prezioen analisisian antzeman ahal izan dugun bezala, Gipuzkoan aurkitzen dira etxebizitza garestienak (27 milioi pezeta), Bizkaian batezbestekoak 21 milioiren azpitik dauden bitartean.

- EAEn **alokatzeko** eskaintzen diren bigarren eskuko **etxebizitzaren errenta** hilean 88.000 pezetakoa da (1994ko hiruhileko berean baino %14 gutxiago). Lurraldeka lortutako emaitzen arabera Araba da garestiena (98.000 pta/hilean), hiriburu honetan Gipuzkoa eta Bizkaikoetan baino eskaintza kontzentrazio handiagoa izaten baita.

2.7. Taula

EAEko ETXEBIZITZEN PREZIO * ETA ERRENTEN ** BILAKAERA

		LIBREA GUZTIRA***	BERRIA		ERABILITA KOA	LIBREAK ALOKATZEKO
			B.O./Gizarte E	Libreak		
1994	I	19	8	20	18	95
	II	20	8	21	19	103
	III	19	9	19	18	102
	IV	19	8	20	19	89
1995	I	21	8	23	21	86
	II	21	8	23	21	88

(*): Milioi pezeta.

(**): Milaka pezeta/hilean.

(***): Etxebizitza libre berriak eta erabilitako etxebizitzak.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 1995eko 2. hiruhilekoa.

2.8. Taula

ETXEBIZITZEN PREZIOAK * ETA ERRENTAK ** LURRALDE HISTORIKOKA

	LIBREA GUZTIRA***	BERRIA		ERABILIT AKOA	LIBREAK ALOKATZEKO
		B.O./Gizarte E	Libreak		
Araba	22,2	6,5	20,7	22,4	98
Gipuzkoa	27,4	7,6	27,1	27,6	91
Bizkaia	17,6	8,2	20,4	16,8	84
EAE	21,2	7,8	23,4	20,5	88

(*): Milioi pezeta.

(**): Milaka pezeta/hilean.

(***): Etxebizitza libre berriak eta erabilitako etxebizitzak.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 1995eko 2. hiruhilekoa

2.9. Taula**ETXEBIZITZEN PREZIO ETA ERRENTEN ALDAKETA TASA**
LURRALDE HISTORIKOKA (\pm %) *

	LIBREA GUZTIRA**	BERRIA		ERABILIT AKOA	LIBREAK ALOKATZEKO
		B.O./Gizarte E	Libreak		
Araba	27,0		3,7	31,8	-1,0
Gipuzkoa	21,0	-4,7	13,2	25,5	-16,7
Bizkaia	1,8	6,6	1,6	5,0	-16,9
EAE	7,7	-0,8	9,2	7,9	-14,1

(*): Prezio eta errenten aldaketa aurreko urteko hiruleko *berekoekiko*.

(**): Etxebizitza libre berriak eta erabilitako etxebizitzak.

Iturria: EAeko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 1995eko 2. hiruhilekoa.

3. Kapituluia

SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZEN ESKAINTZA

3. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZEN ESKAINTZA

3.1. ETXEBIZITZA BERRIA SALGAI

3.1.1. Eskaintzan dauden etxebizitzaren sustapenen ezaugarri orokorrak

- 1995. urteko bigarren hiruhilekoari dagokion inkestan jaso diren eskaintzan dauden etxebizitzaren⁴ **sustapenak** 137 izan dira eta hauek 5.777 etxebizitza barne hartzen dituzte. Guztizko honetatik 26 sustapen, etxebizitza berrienak dira (aurrez erregistratu gabeak) eta 927 etxebizitza barne hartzen dituzte (guztizkoaren %16a).
- Jasotako sustapenetatik %85 erregimen librekoak dira (107), %10 babes ofizialekoak (14) eta gainerako %5 gizarte sustapenak dira (7). Sustapen erregimeneko hiru aldagaiek etxebizitza guztien gainean duten pisu erlatiboa %73, %20 eta %7koa da, hurrenez hurren.
- Sustapenen **batezbesteko tamaina** 42 etxebizitzakoa da. Etxebizitza libreentzat lortutako ratioa 36 da, babestutakoentzat 74 etxebizitza/sustapeneko den bitartean (85 Babes Ofizialekoak eta 54 Gizarte Etxebizitzak). Hiruhileko honetan lehenengo aldiz detektatu diren sustapenei dagokienez, hauen tamaina zerbait txikiagoa dela ikus daiteke, bai erregimen librekoetan eta bai babestutakoetan.
- Jasotako sustapen guztietatik lau **birgaitutako** etxebizitzak dira eta gainerakoak guztiz berriak diren etxebizitzak. Aipatutako birgaitutako etxebizitzaren sustapenetan, eskaintzan dauden 306 etxebizitza barne hartzen dira eta hauetatik ia guztiak, 295, Gipuzkoan eta zehazki Donostian kokatzen dira.

⁴Zuzenean sustatzaileak eskaintako etxebizitzaren sustapenak dira.

3.1. Taula

ESKAINTZAN DAUDEN ETXEBIZITZEN* SUSTAPENEN EZAUGARRI OROKORRAK

	HIRUHILEKOA GUZTIRA	SUSTAPEN BERRIAK
Sustapen Kp.	137	26
Libreak	116	21
B.O./Gizarte E.	21	5
Sustapenetan barneratutako etxebizitzetako kp	5.777	927
Libreak	4.216	608
B.O./Gizarte E.	1.561	319
Batezbesteko tamaina	42	36
Libreak	36	29
B.O./Gizarte E.	74	64

(*) Sustatzaileen eskaintza zuzena.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 1995eko 2. hiruhilekoa.

- Eskaintzan dauden etxebizitzekin egindako sustapenen **eraikuntza faseari** dagokionez, 41 bukatuta daude, 85 eraikitzen ari dira eta gainerako 11 proiektu fasean daude.
- Etxebizitzetako **akaberari** dagokionez, "goi-mailako/luxuzko" etxebizitzetako sustapenak %63 dira (%49 eta %14 hurrenez hurren), "normalak" %36, eta "maila baxuko" akabera dutenak %1a besterik ez.
- Sustapen libreetan arreta jartzen badugu, **merkataritza egoeraren** arabera etxebizitzetako banaketak zera azaltzen digu: hauetan barneratzen diren etxebizitzetako %37a salgai daude. Sustatzaileak zuzenean merkaturatutako salgai zeuden etxebizitzetako berrien kopuru absolutua 1.574 unitatekoa da.
- Inkesta honetan lehenengo aldiz kaptatutako sustapenak alde batera utziz eta aurrez jasotako jarraipen bat eginez lortzen dugun emaitza hau da: azken hiruhilekoan 1995eko martxoan salgai zeuden 1.778 etxebizitzetatik 507 saldu dira, hau da, %28,5.

- Gaur egun salgai dauden etxebizitza guztietatik %19 lehenengo aldiz hiruhileko honetan detektatutako sustapenak dira. Portzentaia hau %29koa zen aurreko hiruhilekoan.

3.2. Taula

ERREGIMEN LIBREKO SUSTAPENETAN* BARNERATUTAKO ETXEBIZITZEN BILAKAERA


		ETXEBIZITZAK GUZTIRA	ETXEBIZITZAK SALGAI	SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZEN % GUZTIZKOAREN/G
1994	I	2.808	1.467	52,2
	II	2.807	1.167	41,6
	III	3.626	1.886	52,0
	IV	3.554	1.928	54,2
1995	I	3.959	1.778	44,9
	II	4.216	1.574	37,4

(*): Sustatzaileek zuzenean eskainitakoak.

Iturria: EAeko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta.
1995eko 2. hiruhilekoa.

3.1. Grafikoa

**SUSTAPEN LIBREETAN BARNERATUTAKO ETXEBIZITZEN ETA
SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA LIBREEN KOPURUEN BILAKAERA**



3.1.2. Salgai dauden etxebizitza berrien ezaugarriak eta kuantifikazioa

- 1995ko bigarren hiruhilekoari dagokion inkestaren arabera **salgai dauden etxebizitza berrien guztizko** kopurua 3.800 unitatekoa da. Guztizko honetatik 2.907 zuzenean sustatzaileak saldutakoak dira eta gainerako 893 (guztizkoaren %24a) inmobiliaria edo merkaturatzeko agentzien bidez saltzen dira.
- Salgai dauden etxebizitza berrien **sustapen erregimenaren** arabera banaketa ondorengoa da: %65 libreak, %26 babes ofizialekoak, eta gainerako %9 gizarte etxebizitzak. Aurreko urtean antzeman ahal izan zen egiturarekin alderatuz, etxebizitza libreen pisua murriztu dela (portzentaian 13 puntu) eta babes ofizialekoena gehitu dela ikus dezakegu.
- Lurraldeka aztertuz, sustapen erregimen desberdinen proportzio erlatiboek aldagarritasun nabarmena eskaintzen dute, batez ere babestutako etxebizitzaren eskaintza bere bi aukeretan banatzerakoan, hau da, Gizarte etxebizitzak eta Babes Ofizialekoak. Honela, hiru Lurraldeetan nagusitzen dena etxebizitza librea bada ere, Araban babestutako etxebizitzaren gaineratik dago (%54, %46ren aurrean). Hala ere Lurraldeen arteko diferentzia handienak ezartzen dituen eskaintza Gizarte etxebizitzek duten presentzia handiagoa edo txikiagoa da. Horrela, mutur batean Araba dago, bere eskaintzaren ia %30a Gizarte etxebizitzek osatzen baitute. Beste muturrean berriz Gipuzkoa dago, Babes Ofizialekoen eskaintza garrantzitsua den bitartean (%30) salgai dauden Gizarte etxebizitzarik ia ez baitago. Bizkaia berriz tarteko egoeran aurkitzen da.
- 2. Kapituluaren esan den bezala, salgai dauden etxebizitza berrien bolumen globala 1994. urteko bigarren hiruhilekotik %4 murriztu da. Murrizketa hau agente inbentarioen bidez bideratutako eskaintzaren murrizketak eragin du. Hala ere, bilakaera sustapen erregimenaren arabera dibergentea da, libreek murrizketa garrantzitsua jasan duten bitartean (%20), babestutakoek oraindik gehikuntza handiagoa izan baitute (%53).

- Lurreldeka aztertuz, salgai dauden etxebizitza libreen bolumenaren murrizketa hiru Lurreldeentzat amankomuna da, Bizkaian bereziki altua bada ere (%29). Babestutako etxebizitzari dagokionez, Bizkaiko eskaintza duela urtebetekoaren bikoitza da; Arabaren kasuan, aurreko urtean eskaintzarik ez bazegoen, aurten kaptatu direnak 152 etxebizitza izan dira. Gipuzkoan, bere aldetik, eskaintza %6 murriztu da.

- **Eraikuntza fasean** dauden etxebizitzak merkaturatzeko joerak nagusitzen jarraitzen duela ere ikus dezakegu. Hala, oraindik eraikitzen ari diren eta salgai dauden etxebizitzek guztizkoaren %63a osatzen dute, amaituta daudenen %9aren aurrean edo oraindik hasi ez direnen %5aren aurrean.

- Salgai dauden etxebizitza berrien **tipologiari** dagokionez, %8 familia bakarrekoak edo adosatuak dira. Sustapen hau aurreko urtekoaren berdina mantentzen dela esan daiteke.

- Salgai dauden etxebizitza berrien **batezbesteko** tamaina 87 m²koa da; babestutakoek 70 m²ko batezbesteko azalera dute eta libreen batezbestekoa 95 m²koa da.

3.3. Taula


SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA BERRIEN EZAUGARRIAK

	EAE		ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
	Kp	%	%	%	%
GUZTIRA	3.800	100,0	100,0	100,0	100,0
SUSTAPEN ERREGIMENA					
Libreak	2.467	64,9	54,4	68,6	63,5
B.O./Gizarte E.	1.333	35,1	45,6	31,4	36,5
TIPOLOGIA *					
Familia bakarrek/biko	237	8,2	29,1	11,6	2,0
Kolektiboa.....	2.670	91,8	70,9	88,4	98,0
AZALERA					
< 60 m ²	588	15,5	0,9	17,1	16,6
61-75 m ²	909	23,9	15,0	23,5	25,9
76-90 m ²	1.208	31,8	45,3	25,6	34,8
91-120 m ²	741	19,5	25,5	25,0	13,5
> 120 m ²	354	9,3	13,2	8,8	9,1
ERAIKUNTZA FASEA *					
Bukatuta.....	334	11,5	4,3	12,3	11,9
Obran	2.396	82,4	59,6	83,7	84,9
Proiektuan	177	6,1	36,1	4,0	3,1

(*): Agentzia inmobiliarioetan merkaturatutako sustapenetako etxebizitzei buruzko informaziorik ez da barneratzen.

Iturria: EAeko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 1995eko 2. hiruhilekoa.

3.2. Grafikoa



3.1.3. Salgai dauden etxebizitza berriak prezioen arabera⁵

- EAEko etxebizitza libre berrien **batezbesteko metro karratuko** prezioa 250.000 pezetakoa da. Honek, 1994ko bigarren hiruhilekoan zuten prezioarekiko gehikuntza handia suposatzen du (218.000 pezeta/m²).
- Etxebizitza babestuari dagokionez, batezbesteko metro karratuko prezioa 113.000 pezetakoa da eta honek, duela urtebeteko prezioak %8 gehitu direla esan nahi du.

⁵ Salmentako batezbesteko prezioak, etxebizitzakoa nahiz metro karratukoa, etxebizitza mota bakoitzeko eskaintzaren bolumenaren arabera ponderazio bat eginez kalkulatu dira.

Batezbesteko balio hau babes ofizialeko etxebizitzaren eta gizarte etxebizitzaren zenbatekoetatik lortzen da, hau da, 128.000 eta 78.000 pezeta hurrenez hurren.

- 1995eko bigarren hiruhilerako etxebizitza libre berriaren emaitzazko **batezbesteko prezioa** 23,4 milioi pezetakoa da eta etxebizitza babestuetan berriz 7,8 milioikoa. Etxebizitza mota baten eta bestearen pisu espezifikoak kontuan izaten baditugu, eskaintzaren batezbesteko prezio globala 17,7 milioi pezetakoa suertatzen da.
- Prezioen banaketa kontuan izanik, zera ikusiko dugu: babestutako eskaintza guztiek 16 milioi pezetatik beherako balioa duten bitartean, 4 etxebizitza libretik bakar bat besterik ez da prezio maila hau gainditzen ez duena.
- Lurralde Historiko bakoitzean eskaintako etxebizitza librearen prezioen egituraren arreta jartzen badugu, Gipuzkoaren profila garestiagoa dela ikusiko dugu; hemen, eskaintzaren %46ak 25 milioitik gorako prezioa du.


3.4. Taula

SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA BERRIEN PORTZENTAIEN BANAKETA PREZIO TARTEEN ARABERA

	EAE			ETXEBIZITZA LIBREAK		
	Guztira	Libreak	B.O./Gizarte E.	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
< 9 milioi	25,3	0,2	71,8	-	0,3	0,1
9tik 12 milioira	10,2	4,4	20,9	1,1	2,5	6,8
12tik 16 milioira	15,8	20,8	6,7	22,7	13,6	27,4
16tik 20 milioira	17,0	25,8	0,6	26,5	23,6	27,8
20tik 25 milioira	12,4	19,2	-	40,3	14,4	20,5
25etik 30 milioira	5,9	9,0	-	1,7	14,3	5,1
30 milioitik gora	13,3	20,6	-	7,7	31,3	12,4
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 1995eko 2. hiruhilekoa.

3.3. Grafikoa




3.5. Taula

SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA BERRIEN PREZIOAK

	BATEZBESTEKO PR/ETXEBIZITZA (milioi pezeta)			PREZIOA/m ² (milaka pezeta)		
	B.O./Gizarte E	Libreak	Guztira	B.O./Gizarte E	Libreak	Guztira
Araba	6,5	20,7	15,6	81	213	165
Gipuzkoa.....	7,6	27,1	21,8	119	283	238
Bizkaia	8,2	20,4	15,9	114	225	184
EAE	7,8	23,4	18,3	113	250	205

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 1995eko 2. hiruhilekoa.

3.4. Grafikoa



- **Akabera** nahiz **eraikuntza mota** eta **azalera** etxebizitzaren prezioan eragina izan dezaketen aldagaiak dira. Etxebizitza libreen segmentuan antzematen den metro karratuko prezioaren eta azaleraren arteko aurkako erlazioa aldatu gabe mantentzen da.

3.6. Taula

METRO KARRATUKO PREZIOAK, ETXEBIZITZA BERRIEN EZAUGARRIEN ARABERA

	EAE (mpta)		
	B.O./Gizarte E	Libreak	Guztira
ERAIKUNTZA MOTA			
Familia bakarreko/biko.....	139	170	124
Kolektiboa	185	241	113
AKABERA *			
Luxuzkoa	261	261	-
Goi-mailakoa.....	247	247	-
Normala.....	140	206	116
Behe-mailakoa.....	76	-	76
AZALERA			
< 60 m ²	189	296	128
61-75 m ²	194	258	118
76-90 m ²	175	234	102
91-120 m ²	246	246	150
> 120 m ²	235	235	140

(*): Agentzia inmobiliarioetan merkaturatutako sustapenei buruzko informaziorik ez da barneratzen.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 1995eko 2. hiruhilekoa.

3.2. SALGAI DAUDEN ERABILITAKO ETXEBIZITZAK

3.2.1. Kuantifikazioa eta ezaugarriak

- 1995eko bigarren hiruhileko inkestaren bidez jasotako salgai dauden bigarren eskuko **etxebizitzaren kopurua** 7.085 unitatekoa da eta honek, duela urtebete jasotako bolumena mantentzen dela esan nahi du.
- **Geografikoki**, Arabak eskaintza mota honen %17a biltzen du, Gipuzkoak %27a eta Bizkaiak %56a. Proporzio erlatibo hauei buruz 1994ko bigarren hiruhilekoan egindako inkestan lortutako emaitzen arabera, Arabari dagokion zenbatekoa aldatu

gabe mantendu den bitartean, Gipuzkoa 6 puntu jaitsi da, Bizkaian igo den portzentaia bera.

- Balio absolutuetan, Gipuzkoan eskaintza murriztu den bitartean (%20) Bizkaiko eskaintza %13 gehitu da.
- Eraikuntzaren **tipologia** kontuan izanik, berriro ere, familia bakarreko/biko etxebizitzak eta kolektiboen arteko banaketaren egonkortasuna nagusitzen da, bakoitzaren portzioak %3 eta %97 direlarik.
- Jaso dugun erabilitako etxebizitzak **batezbesteko** azalera 91 m²koa da EAE guztian. Tamainuen araberrako banaketak, azalera txikiagoko etxebizitzak pisua handiagoa dela erakusten digu. Hau dela eta, gaur egun 75 m² baino gutxiagoko etxebizitzak eskaintzaren %46a osatzen dute, duela urtebete %33a besterik ez ziren bitartean. Etxebizitza txikiagoen gehikuntza hau bereziki azpimarragarria da Bizkaian; 60m² baino gutxiagoko etxebizitzak %23 dira, 1994an %10 besterik ez ziren bitartean.


3.7. Taula

SALGAIDAUDEN ERABILITAKO ETXEBIZITZEN EZAUGARRIAK

	EAE		ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
	Kp	%	%	%	%
GUZTIRA	7.085	100,0	100,0	100,0	100,0
TIPOLOGIA					
Familia bakarreko/biko	210	3,0	2,1	5,4	2,1
Kolektiboa.....	6.875	97,0	97,9	94,6	97,9
AZALERA.....					
< 60 m ²	1.354	19,1	14,7	13,1	23,4
61-75 m ²	1.872	26,4	21,6	21,7	30,2
76-90 m ²	1.667	23,5	31,2	23,5	21,1
91-120 m ²	1.156	16,3	20,8	19,6	13,4
> 120 m ²	1.036	14,6	11,8	22,1	12,0

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 1995eko 2. hiruhilekoa

3.5. Grafikoa



3.2.2. Salgai dauden erabilitako etxebizitzaren prezioak⁶

- Salgai dauden bigarren eskuko etxebizitzaren **metro karratuko batezbesteko prezioa** 218.000 pezetakoa da, hau da, aurreko urteko bigarren hiruhilekoan jasotakoa baino %2,5 gutxiago (224.000 pta/m²).
- Lurraldei dagokienez, Gipuzkoako batezbesteko balioa 262.000 pta/m²koa da, Araban 253.000 pta/m²koa, balio txikiena Bizkaian aurkitzen dugularik; 187.000 pta/m². Aurreko Txostenetan esan den bezala, lurraldeen arteko desberdintasun hauek, hiriburu bakoitzean eskaintzak duen pisu erlatiboaren eraginagatik gertatzen dira.

⁶ Agentzia inmobiliario baten bidez saldutako etxebizitza bat erosten duenak ordaintzen dituen azken prezioak, hasieran ezarritakoak baino %10etik %15era merkeagoak izan ohi direla kontuan izan behar da.

- **Etxebizitzaren prezioari** dagokionez EAE osorako lortzen dugun balioa 20,5 milioi pezetakoa da, Gipuzkoan 27,6 milioikoa, Araban 22,4 milioikoa eta Bizkaia 16,8 milioikoa.
- Prezio tarteen arabera egindako erabilitako etxebizitzaren banaketak zera islatzen du; eskaintako etxebizitzaren %62ak 20 milioi pezetatik beherako prezioa du, duela urtebete lortutako proportzioa baino altuagoa (%54). Era berean, Gipuzkoan 30 milioi pezetatik gorako etxebizitzaren pisu handia (%28) ere berriro nabaritzen da, hauetako gehienak hiriburuan kokatuta daudelarik.

3.8. Taula

SALGAI DAUDEN ERABILITAKO ETXEBIZITZEN PREZIO TARTEEN ARABERAKO BANAKETA ETA PREZIOAK


	EAE	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
	%	%	%	%
BANAKETA				
< 9 milioi	13,1	3,9	9,0	18,0
9tik 12 milioira	14,5	7,0	11,8	18,0
12tik 16 milioira	19,4	26,4	13,7	19,8
16tik 20 milioira	15,4	22,2	14,4	13,7
20tik 25 milioira	12,3	13,6	14,6	10,8
25etik 30 milioira.....	8,1	13,1	9,0	6,2
> 30 milioi	17,2	13,7	27,6	13,4
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0
Batezbesteko Prezioa/m ² *	218	253	262	187
Prezioa/etxebizitza **	20,5	22,4	27,6	16,8

(*): Milaka pezeta.

(**): Milioi pezeta.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 1995eko 2. hiruhilekoa.

3.6. Grafikoa



4. Kapituluia

ALOKATZEKO DAUDEN ETXEBIZITZAK

4. ALOKATZEKO DAUDEN ETXEBIZITZAK

- 1995eko bigarren hiruhilekoan egindako inkestan antzemandako alokatzeko dauden etxebizitzaren bolumena 974 unitatekoa da, eta horietako 958 etxebizitza nagusi gisa okupatzera destinatu dira. Zifrak aurreko hiruhilekoetan erregistratutako antzekoak dira. Ez da etxebizitza berrien sustapenarekin loturiko alokatzeko etxebizitzarik detektatu.
- Alokatzeko dauden etxebizitzaren artean detektatutako **lurralde-banaketa** honako hau da: %8 Araban, %36 Gipuzkoan eta gainerako %56 Bizkaian.
- Etxebizitzaren **tipologiari** dagokionez, ia guztiak kolektiboak dira (%99). Tamainaren araberrako banaketak etxebizitza txikiaren kopurua gehitu dela adierazten du, 1994ko bigarren hiruhileko emaitzen aldean. Honela, alokatzeko dauden etxebizitzaren %44ek 75 m² -tik beherako dimentsioa dute; duela urtebete, aldiz, proportzioa %24koa zen.
- Antzemandako batezbesteko **hileroko errenta** 88.000 pezetakoa da eta honek esan nahi du duela urtebete jasotako batezbestekoaren aldean, ia %14ko jaitsiera izan dela. Lurraldeei dagokienez, Araba agertzen da nagusi, 98.000 pezetako batezbesteko errentarekin, Gipuzkoa (91.000) eta Bizkaiaren aurrean (84.000); Arabako eskaintza guztia hiriburuan izateak eragin handia du emaitza horretan; beste bi lurraldeetan, berriz, ez da horrelakorik gertatzen.

4.1. Taula

ALOKATZEKO DAUDEN ETXEBIZITZEN EZAUGARRIAK

	EAE		ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
	Kp	%	%	%	%
GUZTIRA	974	100,0	100,0	100,0	100,0
AZALERA.....					
< 60 m ²	152	15,6	1,2	13,6	19,2
61-75 m ²	275	28,2	12,0	28,0	30,9
76-90 m ²	289	29,7	38,6	33,1	26,1
91-120 m ²	165	16,9	37,3	17,2	13,6
> 120 m ²	93	9,5	10,8	8,2	10,2
HILEKO ERRENTA					
25.000 pta.ra.	3	0,3	0,0	0,6	0,2
25.001-40.000 pta	46	4,7	0,0	7,3	3,7
40.001-75.000 pta	387	39,7	33,7	35,9	43,2
75.001-100.000 pta	304	31,2	39,8	29,7	30,9
100.000 pta.tik gora	234	24,0	26,5	26,6	22,0
Batezbesteko errenta (m/pta.).....	88		98	91	84

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 1995eko 2. hiruhilekoa.

5. Kapitulu

GARAJE ETA LOKALEN ESKAINTZA

5. GARAJE ETA LOKALEN ESKAINTZA

5.1. GARAJEEN ESKAINTZA

- 1995eko lehen hiruhilekoan izandako **garajeen eskaintza** 8.908 plazakoa izan da.

- Sustatzaile eta agente inmobiliarioek antzemandako alokatzeko garajeen eskaintzak murrizta jarraitzen izaten du (577 plaza). Alokatzeko dauden garajeak, hirugarren batzuen parte-hartzerik gabe, partikularren arteko kanal informaletan zehar mugitzen direlako gertatzen da nuerri handi batean,.

- Garajeen **salmenta prezioak** 1,9 milioi inguruan daude eta honek %4ko gehikuntza dakar 1994ko bigarren hiruhilekoan izandako prezioei dagokienez.

- Lurraldeka, preziorik garestienak Gipuzkoakoak dira, eta aurreko urtearen aldean gehikuntza nabarmena ikus daiteke (+%15). Araban, aldiz, murrizketa nabarmena izan da (-%25) prezioetan.

- **Hileko batezbesteko errentei** dagokienez, EAE mailako batezbesteko zifra 10.000 pta/hilean da, Lurraldeetan Arabako 8.000 pta/hilean eta Gipuzkoako 11.000 pta/hileko kopuruen artean egonik.

5.1 Taula.

SALGAI ETA ALOKATZEKO DAUDEN GARAJEEN ESKAINTZA ETA PREZIOAK


	SALGAI			ALOKATZEKO		
	Kp	PREZIOA*		Kp	ERRENTA/HILEAN	
		mpta.	±% **		mpta.	±% **
Araba	890	1.797	-25,5	223	8	0,0
Gipuzkoa.....	3.940	2.283	14,9	204	11	0,9
Bizkaia	3.501	1.602	2,5	150	11	-21,4
EAE	8.331	1.945	4,2	577	10	-14,2

(*): Milaka pta.

(**): Prezio eta errenten aldakuntza, aurreko urteko hiruhileko berari dagokionez.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 1995eko 2. hiruhilekoa.

5.1. Grafikoa



5.2. MERKATARITZA LOKALEN ESKAINTZA

- Inkestan erregistratutako **merkataritza lokalen kopurua** 6.486koa da EAE osoan.
- Lokalen eskaintza salmenta eta alokatze modalitateetan honela banatzen da: %60 inguru saltzen dira (3.994) eta %40 alokatzen da (2.492).
- Lokalen **salmenta-prezioek** 227.000 pta/m² batezbestekoa agertzen dute EAE osoan, eta honek 1994ko bigarren hiruhilekoan ikusitako mailen aldean -%14ko murrizketa dakar.
- Lurraldean arabera, Gipuzkoak lehen postua hartzen du berriz ere (278.000 pta/m²) Araba eta Bizkaiko 200.000 pta./m² inguruko zenbatekoen aldean. Lurraldean aldakuntza-tasen arabera, Bizkaia nabarmentzen da -%27ko balioarekin.
- Alokatzeko lokalei dagokienez, **hileko errentak** 168.000 pta/hilabeteko batezbestekoa finkatu dira, aurreko urtearen bigarren hiruhilekoan izandako balioaren %6 baino gehiago. Gipuzkoak EAEko batezbestekoa %18an gainditzen du eta gehikuntza nabarmena du (+15%). Beste muturrean, Araban errentarik txikienak erregistratu dira, aurreko urtekoen aldean, %10etik behera izanik.

5.2. Taula

SALGAI ETA ALOKATZEKO DAUDEN MERKATARITZA LOKALEN ESKAINTZA ETA PREZIOAK

	SALGAI			ALOKATZEKO		
	Kp	PREZIOA		Kp	ERRENTA/HILEAN	
		mpta.*	±%**		mpta.	±%**
Araba	1.165	211	-0,5	691	139	-9,4
Gipuzkoa.....	1.287	278	-7,9	605	198	15,1
Bizkaia	1.542	196	-26,6	1.196	168	6,2
EAE	3.994	227	-13,9	2.492	168	5,7


(*): Milaka pta.

(**): Prezio eta errenten aldakuntza, aurreko urteko hiruhileko berari dagokionez.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 1995eko 2. hiruhilekoa.

5.2. Grafikoa

SALGAI ETA ALOKATZEKO DAUDEN LOKALEN PREZIOAK



6. Kapitulu

